

Pacheco eta Rojas Marcosen arteko borroka andaluzisten kongresuan

Jerezeko alkateak PA utz dezake 15 urteko liskarrari amaiera emanez

Gaur hasiko da Sevillan Partido Andalucistaren (PA) VIII Kongresua. Azken urteotan haziz doan nazionalista andaluziarren alderdiak barne krisiari egin beharko dio aurre, Alejandro Rojas Marcos eta Pedro Pacheco bi alderdiburu garrantzitsuenen arteko borroka dela medio. Azken horrek PA utz dezakeela iragarri du.

DONOSTIA

Partido Andalucistaren azken krisia maiatzeko udal hauteskundeetan osten etorri zen. Hauteskunde horietan, PAK akordioa sinatu zuen PPrekin Sevillako alkatetzaren eskuetara igarotzeko. Pedro Pachecok —azken hamar urteotan Jerezeko alkatea izandakoa eta PAK hauteslegoa erakartzeko duen armarik finena— ez zuen begi onez ikusi PPrekin egindako akordioa eta alderdiko lehendakaritza utzi zuen.

Hala ere, krisia aspalditik dator eta Rojas Marcos eta Pachecoren arteko borroka pertsonalean laburbiltzen da. Borroka 1970eko hamarkadan hasi zen, nazionalismo andaluziarren hastapenetan. Garai horretan Alianza Socialista de Andalucian (ASA) biltzen ziren nazionalistak. Alderdi horrek PSA izena hartu zuen ondoren eta kutsu sozialdemokratik nazionalistak baino indar handiagoa zuen. PSOErekin izandako lehian galtzaile irten zen PSA. Andaluzisten buru batzuk eta Pacheco beraien artean, PSOEren barne sartzeari eskatu zuten. Rojas Marcosek alderdia mantentzea lortu zuen eta Pachecoren etsai bihurtu zen. Jerezeko alkategaia aukeratzeko orduan, Rojas Marcosek Pachecoren aurka egin zuen baina ezin izan zuen Pacheco-



Rojas Marcosek PAREN lehendakaritza berreskuratu du seguruenik. ABAD

ren garaipena eragotzi, Pachecok alderdiaren oinarri diren nekazal eta langileen laguntza bait zuen.

Krisian egon arren, andaluzistek garaipen handia lortu zuten eta bost diputatu lortu zituzten Legebiltzarrean. Baina Rojas Marcosek huts egin zuen eta UCDeekin hitzarmenak sinatu zituen. Emaizta negargarria izan zen PSArekin, 1982an Andaluziako Legebiltzarrean hiru diputatu besterik eskuratu ez zituztelako. Rojas Marcosek alderdiko lehendakaritza utzi zuen eta Pacheco-

coren esku geratu zen PSAREN berpiztea. Lehen unean alderdiak zuloan jarraitu arren, azken hauteskunde guztiak garaipenak izan dira andaluzistentzat. Maiatzeko udal hauteskundeetan PAK 341.000 boto lortu zituen eta 538 zinegotzi, 1987an eskuratutako 221.000 botoak % 50ean gaindituz.

SEVILLAKO ALKATETZAK ERABAKI 1987an politikara itzuli eta Sevillako zinegotzi zen Rojas Marcosek beste hitzarmen bat sinatu

✓ PAREN krisia 1970eko hamarkadatik dator eta Rojas Marcos eta Pachecoren arteko borroka pertsonalean laburbiltzen da.

«Hanka bat PAREN kanpo daukat eta kongresuaren amaieran erabakiko dut bestea ateratzen dudala ala ez» esan zuen Pachecok.

zuen, oraingo honetan PPrekin. Hitzarmenaren ondorengo egunetan, Pachecok PAREN lehendakaritza utzi zuen.

Pachecoren dimisioa PAREN zuzendaritzarekin izandako gerra luzearen amaiera izan zen. Zuzendaritza Rojas Marcosen esku egon da azken urteotan, Alejandro Perez Bueno idazkari nagusiaren bidez.

Gaur hasiko den kongresurako zerrenda bakarra aurkeztuko da azkenean. Rojas Marcos lehendakaritza eta Miguel Angel Arredonda idazkaritza nagusirako, Pachecorekin ados ez dauden beste sektore guztiak bildu nahirik. Azken horrek bere hautagaitza aurkezteko asmoa agertu zuen hasiera batean, baina atzera egin du porrota begi aurrean ikusi zuelako. Horretaz gain, Pachecok kongresura agertuko ez zela eta PA utz dezakeela iragarri zuen. «Hanka bat PAREN kanpo daukat eta kongresuaren amaieran erabakiko dut bestea ateratzen dudala ala ez» esan zuen Pachecok. Jerezeko alkatetzaren betetzeko geratzen zaizkion lau urtetan karguan jarraituko duela esan zuen Pachecok, baina epea amaitzerakoan seguruenik politika alde batera utziko duela jakin erazi zuen.



Michel Rocard.

Rocarden dibortzioak ageri utzi du frantziarren kontserbadurismoa

L.E. / BAIONA

Michel Rocard lehen ministro ohiak dibortziatu egingo dela jakin eza ondoren inkesta batek agertzen du Frantzian ez dela gehiengorik «garbi mintzatze» hori gustukoa duenik. Horrekin goi mailako pertsonalitate politikoaren tabu baten apurtzearen kontua dator mahai gainera.

Gizon politikoaren irudia premiazkoa da oraindik hautetsi bilakatzen: «familia zintzoa» irudia nagusi da oraindik oinarriko baldintza gisa. Dimisio famatuak izan dira azken urteotan horrelako irudi mitikoak praktikan apurtzeagatik, Estatu Batuetan, Ingalaterran edo beste leku batzuetan.

Rocarden kasua ohargarria da, Frantziako lehendakariari ahalezkoa baita, Delorsen batera eta Mitterranden ondokoetarik. Eskubiko oposizioak arma guztiak erabiliko ditu ezkerreko lurrera botatzeko, Rocarden aitormenek probentzio ekin-tza baten irudia daukate. Politikaren ikertzaileak horren garrantziaz konturatu dira eta ikerketa bat bultzatu dute, aste honetan argitaratu ematen dena.

BVA-Paris Matchen inkestak diotenez % 43k ongi eritzi diote Rocardek arazoa jakin erazi duela, % 47k ez dute horrelakorik onartzen eta % 11k erabat gaitzesten dute. Hala ere, % 66k diote «bere karrera politikoari ez diola horrek kalterik egingen».

Hauteskunde sindikaletako emaitzak protesta artean onartuko dira

MADRIL

UGT sindikatuak lortu du garaipena aurtengo hauteskunde sindikaletan, gaur onartuko diren emaitza ofizialen arabera. Emaitzak ofizialak izateko, Hauteskunde Sindikalen Batzorde Nazionalaren (CNES) onspena beharrezkoa da. CNESen, Gobernua, enpresariak eta sindikatuak daude ordezkariak, bakoitzak 13 botorekin. Enpresariak abstenitu direla iragarri dute eta Gobernuak aldeko botoa emango du. Sindikatuen artean desberdintasunak daude. UGT, ELA eta CSIFek onartuko dituzte emaitzak, baina CCOO eta USOk ezezkia emango diote, «azpijokoak izan direla» salatzen bait dute. Sindikatu horien esanetan, «hau-

teskunde akta batzuk aztertu gabe daude oraindik». Gaur ofizial egingo diren emaitzen arabera, UGTk 94.828 ordezkari lortu ditu (% 43). Bigarren lekuan CCOO gelditu da 82.692 ordezkariarekin (% 32). Bi sindikatu handien atzetik ELA euskal sindikatuak eskuratu ditu ordezkari gehien, (% 3,2). USO, CSI-CSIF eta beste sindikatuen artean banatu dira gelditzen diren ordezkariak.

Hauteskundeetako emaitzak onartu arren, UGT eta CSIFek Gobernua salatzen dute hauteskundearen garbitasuna ikertzen zituzten batzordeak eratzeko eragindako atzerapenagatik. «Emaitzen alde egin badugu, egoera desblokeatzen izan da» adierazi zuten bi sindikatuetako ordezkariak.



UGTk lortu ditu ordezkari gehien.

CONTRERAS

F.Ordoñezek Atzerri Ministeritza utz dezake

MADRIL

Francisco Fernandez Ordoñez Espainiako Atzerri ministroak bere postua utz dezake aspalditik duen gaixotasuna dela medio. Fernandez Ordoñezek Felipe Gonzalez alderdiaren eskatu diola esaten da, baina honek ez du oraindik erantzun, Gobernuaren aldetatik ekar ditzakeen ondorioak ekin nahian. Bere ordeza, Narcis Serra lehendakariordea, Javier Solana Hezkuntza ministroa eta Carlos Soltxaga Ekonomi ministroaren izenak aipatzen dira. Komentarista politikoek Alfonso Gurreren azpikeriak ikusten dituzte ordezkariaren honen atzean.